

JUSTICIA POÉTICA ELKARTEA

Justicia Poética Elkarteak (IFK: G-74447921), xede sozialen artean dituela sexu-kaltegabetasunaren kontrako delituen biktima izan diren emakumeen eta adingabeen babesa eta justizia-sistemaren irregulartasunen kontrako borroka, presidente duen Mario Díez Fernández jaunaren bitartez, berau baita, gainera, gutxienez 1988az geroztik gaur arte iristen diren gertaera izugarri larri batzuei buruzko salaketak bildu diren "**KOTE CABEZUDO KASUA**" deitutakoan izandako biktima gehienen letradua, udal horretara jotzen du, udalbatzaren osoko bilkurari honako **adierazpen instituzionala** egin dezan eskatzeko:

1. **Barren-barrenetik deitoratzea** gure lurralde historikoan izapidetzen ari izatea hainbeste urtetan zehar eta hainbeste kaltetu utziz izan diren gertaera arbuigarriengatik kausa judizial bat, horrelakoek lotsatu eta iraindu egiten dituztelako pertsona zintzo eta zuzen guztiak, eraiki nahi dugun gizartearekin inolaz ere bat ez datorren irudia proiektatzearekin batera.
2. Gure **gaitzespenik sendoena** adieraztea pertsonen sexu-kaltegabetasuna urratzen duen ekintza ororen aurrean, bereziki adingabeak direnean, horiek bereziki behar baitute **erakunde eta botere publikoen babesa**; erakunde eta botere publiko horien eginbeharra, hain zuzen ere, beharrezko mekanismoak prestatzea da, horrelako deliturik bat bera ere ez dadin zigortu gabe geratu.
3. Biktimei eta kaltetuei gure **elkartasun eta laguntza** sentimendurik zintzoena helaraztea, sexu-abusuengatik prozesu judizial orok biktimari jasanarazten dion trantze latzaren jakitun izan arren salatzen iritsi direnek erakutsi duten **adore eta ausardiarekiko errekonozimenduarekin** batera.
4. Herriaren borondatearen ordezkari garen neurrian, dagokigun jarduera-esparruan **konpromiso irmoa** hartzea, gure adingabeen gaineko **sexu-abusuko egitura iraunkorrak detektatzeko eta horiei aurre egiteko** neurriak ahalik eta gehien zorroztearren, eta egitura horietako batek berak ere ez dezan, inoiz, inongo botere publikotan, inolako konplizitatearik aurkitu.

Adeitasunez,

Mario Díez Fernández
Justicia Poética Elkartearen
presidentea. IFK: G-74447921
Fernández de Oviedo kalea, 28 –
2. B 33012-Oviedo.
info@justiciapoetica.org

IZENA: DIEZ
FERNANDEZ
MARIO – IFK:
12395341C

Sinadura digitala. IZENA:
DIEZ FERNANDEZ MARIO
– IFZ: 12395341C
Data: 2018.11.04
22:26:01+01'00'